

**Hipoteka-maileguen** merkaturatzean dagoen jarduera sendoa nabarmendu da, legedi berria indarrean sartzea ezaugarri izan duen epealdian

## **197,3 milioi euroko mozkina lortu du Kutxabankek lehenengo seihilekoan, % 5 gehiago**

- **Hipoteka-maileguen ematea merkatuaren oso gaintik hasi da, % 25, baita kontsumorako maileguak ere, % 13,3 egin baitute gora**
- **%2,1 hazi da banka negozio errepikaria, interes marjinaren hobekuntzak, aseguruen negozioaren errepikapenak eta zerbitzu-komisioen egonkortasunak lagunduta**
- **Salmenta digitalak %86 hazi dira seihileko honetan, eta online aritzen diren erabiltzaileak %40an kokatu dira**
- **Berankortasuna 48 oinarrizko puntu jaitsi da lehenengo seihilekoan, % 3,38koa da, sektoreko baxuenetako bat**
- **Urtariletik hona, kaudimen-indizea 50 oinarrizko puntu hobetu da, ondorioz, Core Tier I % 16,6an kokatu da dagoeneko**

**2019ko uztailak 24. 197,3 milioi euroko** mozkin garbia lortu du Kutxabank Taldeak 2019ko lehen seihilekoan, iazko epealdi berean baino **% 5,0** gehiago. Cajasur-en ekarpen positiboa **15,4 milioi eurokoa** izan da, 2018ko lehenengo seihilekoan baino **% 11,5** gehiago.

**Eremu makroekonomikoan ziurgabetasunak** irauten duen testuinguruan lortu du emaitza hori finantza-taldeak, Txina eta AEBen arteko guda komertziala eta Brexit-a hortxe daudela, Espainiaren **hazkunde aurreikuspenak**, ordea, hobetu egin dira testuinguru horretan eta **burtsek aurrerapen txikiari eutsi diote**. Banku negozioarako aipatzeko alderdi negatiboa da, EBZk ateak zabaldu dizkiela **tasen beherapen berriei eta estimulu monetario gehiagori**, Euriborra berriz ere minimo historikoetan dagoen unean.

2019ko lehenengo seihilekoan joera bertsua mantendu da. Negozioaren bilakaeran **produktu berrien kontratazioaren** hazkunde sendoa izan da gako nagusietako bat. Hala jazo da ETE-en finantzaketan, eta bereziki, **hipoteka-maileguetan eta kontsumorako maileguetan**, kasu bietan argi eta garbi merkatuaren portaeraren batez bestekoaren gaintik kokatu baita Kutxabanken bilakaera, eta berriz ere hazkunde errekorrak lortu ditu.

Hipoteka Kredituaren Kontratuen Lege berriaren indarrean sartzeak baldintzatu duen seihilekoan, Kutxabanken xehekako sareak merkaturatutako **hipoteka-maileguak % 24,8**

aipagarria igo dira. Bien bitartean, **kontsumora** bideratutako maileguez % **13,3** egin dute aurrera.

Enpresei emandako finantzaketaren bilakaera ere merkatuaren gainetik kokatu da, % **8,2** igo baita kontratazio berria.

**Aseguruaren negoziotik** eratorritako diru-sarrerek ohiko joera onari eutsi diote. **71,7 milioi** euroko ekarpena egin dio jarduera horrek emaitza-kontuari, % **8,3** gehiago. Hazkunde hau produkzio berrian oinarritu da, salmentak %4,1 hazi baitira.

Xehekekako sareek **administratutako baliabideen** bilakaera ona izan da, % **4,6 egin baitute gora**, bai **erakarpenaren erritmo** onarengatik -Kutxabank izan da bigarren Taldea sarrera garbieran balantzetik kanpoko baliabideetan-, bai bere **balorazioen** igoeran, burtsa-merkatuen portaera positiboek lagundu egin diete-eta.

Azken hiruhilekoko joera positiboari jarraiki, %2ko hazkundera izan du Interesen Marjinak. Honela, 'core' negozioaren sarrerak, hau da, finantza-bitartekotzatik, komisioetatik eta aseguruetatik eratorritakoak, %**2,1** aurreratu dira, **534,5 milioi** eurora arte. Ohiko negozioaren ekarpena handiagoa izan da, beraz, zerbitzuen eta produktuen komertzializazioak bilakaera positiboa izan baitu.

Dibidenduen eta baliokidetasun sarrerak, halaber, **33 milioi** eurora iritsi dira.

Honekin guztiarekin, Marjina Gordina **560,3 milioi** eurora heldu da, negozio errepikariaren bilakaera positiboa izanik.

Kostuei eusteko ohiko izapideen baitan, Administrazio Gastuak arinki jaitsi dira, **gastu orokorrak %1,2** murriztuta.

Taldearen mailegu-zorroaren kalitate altuak eta bilakaera positiboak txikitu egin ditu saneamenduen eta ohiko zuzkiduren beharrak. Hala ere, Kutxabankekin zuzkidearen irizpideari eutsi dio arriskuak estaltzean eta 123,2milioi euro bideratu ditu Saneamenduetara eta narriaduetara.

### Izenpetze garbieran bigarren kudeatzailea

Negozio sareek kudeatutako bezeroen baliabideak %**4,6** hazi dira, eta **62.678 milioi** eurora heldu dira.

Ageriko aurrezkiaren bilakaera onaz gain, balorazioen hobekuntzak eta bereganatzeetan izaniko portaerak **inbertsio fondo**en igoera ekarri dute, %**5,1**koa hain zuzen ere, bai eta **pentsio plan**ena ere, %**3,7**koa.

Seihilekoa amaitzean, Kutxabank Taldeak **bigarren postua lortu du izenpetze garbietan**, guztira **528 milioi** euroko bolumena kudeatuta, dagokion merkatu-kuotaren gainetik.

Emitza onaren oinarrian izan dira **emisio berriak**, eta kudeatutako zorroen portaera lagungarria izan da, Kutxabanke lehen postuak lortu baititu bezeroari emandako errentagarritasunean.

### **Banka digitalak kuota hipotekarioaren hobekuntza bultzatu du**

**Ekoizpen kreditu-inbertsioak % 0,8** egin du aurrera, batez ere xehekako sarearen jarduerak bultzatuta. Zehazki, **1.927 milioi** euro bideratu dira partikularren eta familien finantzaketa-eskaerari erantzutera, 2018ko ekainean baino **% 23** gehiago.

Berriz ere, **hipoteka-maileguen** eremuan **gainditu egin dira itxaropen onak**, eta hori Hipoteka Kredituaren Kontratuen Lege berria indarrean sartu den epealdian gertatu da.

Kutxabank Taldeak **% 24,8** igo du mailegu berrien ematea, eta orotara **1.659 milioi** euro bideratu ditu horretara, horrela, merkatu-kuota irabazten jarraitu du diharduen lurralde guztietan. **Euskadin**, orotarako hipoteken **% 43,4n** dago kokatuta eta **% 7,2n**, Estatu osoari dagokionez. Ehuneko horiek Bankuaren sarearen kuotaren gainetik kokatzen dira kasu guztietan, izan ere, bere **Banka digitalak** pisua irabazten jarraitu du kontratazio prozesuak hasteko orduan, bereziki, bulegoen presentzia txikiagoa den guneeetan.

Enpresa txiki eta ertainei bideratutako finantza-jarduera ere merkatuaren joeraren gainetik kokatu da, **% 2ko** igoeraz Enpresetarako Bankaren ekoizpen inbertsioan. **Aktibo zirkulatzaila**, bere aldetik, **% 4,1** hazi da eta **% 3,6** kanpoko merkataritzaren jardueretarako finantzaketa.

### **Salmenta digitalak % 86 hazi dira**

Irtenbide digital ugari merkaturatu ditu Kutxabanke 2019ko lehenengo hilabeteetan. Bere banka digitalek telefono mugikorraren bidezko **Apple Pay, Samsung Pay** eta **Google Pay** ordainketa-zerbitzuak gaitu dituzte. Baliabide horiek bezeroei ematen zaien zerbitzua hobetu dute, gero eta ohituago baitaude eragiketak online egitera.

Telefono mugikorretarako agregazio-zerbitzu berria ere abiarazi da. Zerbitzu horren abantaila nagusietako bat honakoa da, 'app' bakarretik kontsulta daitezkeela beste finantza-erakunde batzuetan kontratatu diren produktuen posizioak. Tresna horri esker,

Kutxabanken bezeroek euren finantza-egoeraren ikuspegi globala izan dezakete, ia begirada bakar batean.

Gaur egun, Euskadiko finantza-talde honen bezeroen **% 40 erabiltzaile digitalak** dira, eta zifra hori era esponenzialean doa gorantz. Gainera, online kontratatutako banku produktu eta zerbitzuen pisua gero eta handiagoa da; izan ere, **salmenta digitalak % 86** hazi dira Kutxabanken 2019ko lehenengo seihilekoan.

### **Aurrerapen esanguratsuak kudeaketa adierazleetan**

Kutxabankek kapital-eskakizun baxuena lortu du, SREPrek ebaluazioaren arabera, Espainiako finantza-sistemaren eskakizun txikienetako bat da, eta Europako ikuskaritzaren profil gorenetakoa du, arrisku maila txikiarengatik, bere gaitasun finantzarioarengatik eta kaudimenarengatik. Bere **Core Tier I (Phase in)** oinarriko 50 puntu hobetu da seihilekoan, eta **%16,6an** da. Aurrerakada honek etorkizuneko erronkei erantzuteko ahalmen handiagoa eman dio.

Taldearen ondare garbia % 6,3 hazi da 2018ko ekainarekin alderatuta, eta horrek bere akziodunentzako balio handiagoa sortzea ahalbidetu dio Bankuari.

Urtearen lehenengo seihilekoan bere berankortasun-tasaren etengabeko jaitsierak jarraitu du, batez ere, batik bat zalantzazko aktiboaren sarrerek **508 milioi euroan** egin dutelako behera urtebetean.

Gertakizun dauden arriskuak barne hartuta, taldearen berandutza-ratioa **% 3,38koa** da, 2018an baino **111 oinarrizko puntu gutxiago**, eta horrek urtea %3 ingurukoko tasarekin amaitzeko aurreikuspena egitea ahalbidetzen du.

Kutxabankek finantza-sektorearen batez bestekoaren gaineko kreditu-kalitate maila duela berresten dute hobekuntza horiek.

Kudeaketaren gainerako adierazleetan ere aurrerapen esanguratsuak gertatu dira. **Palankatze ratioak %8a** gainditu du, alorreko onenetakoa izanik. Kutxabankek bere errentagarritasun-ratioen bilakaera positiboari eutsi dio. **ROTE % 6,9ra** iritsi da, eta **ROA % 0,6ra**. Bere aldetik, **eraginkortasun-ratioa % 54,5koa** da.

**Kutxabanken emaitzak, 2019ko lehenengo seihilekoa**

Milioi euro	2019 ekaina	%Δ
Interesen Marjina	282,1	2,0
Komisioak eta aseguruak (*)	252,4	2,2
<b>Banka negozioaren sarrera errepikariak</b>	<b>534,5</b>	<b>2,1</b>
Dibidenduak eta baliokidetasunak	33,0	-20,3
ROF (**)	6,1	2,9
Beste Ustiapen Gastuak (*)	-13,3	n.s.
<b>Marjina Gordina</b>	<b>560,3</b>	<b>-2,0</b>
Administrazio Gastuak	-300,0	-0,1
Amortizazioak	-26,8	1,8
<b>Ustiapen Marjina</b>	<b>233,5</b>	<b>-4,7</b>
Saneamenduak eta narriadurak (**)	-123,2	17,0
Beste irabazi eta galerak (**)	106,5	9,2
Zergak eta bestelakoak	-19,6	-60,4
<b>Taldearen emaitza</b>	<b>197,3</b>	<b>5,0</b>

(\*) Taldearen aseguru konpainien emaitzak 'Komisioak eta aseguruak' atalean erakusten dira, 'Beste ustiapen emaitzak' atalean izan ordez

(\*\*)Konparatu ahal izateko, salmenten, ondare-tresnen eta partaidetzen errebalorizazioko emaitzak 'Beste irabazi eta galerak' epigrafean erakusten dira, eta zor-tresnen narriadurak 'saneamenduak eta narriadurak' atalean